Invitamos a quienes estéis interesados en conocer mejor la realidad de las víctimas a que os acerquéis estos días, compartáis sus vivencias y escuchéis su voz.

Biktimen errealitate eta egoera hobeto ezagutu nahi duzuen guztioi dei egiten dizuegu ekitaldi horietara etor zaitezten, pertsona horien bizipenak zeuenganatu ditzazuen eta beraien ahotsa entzun dezazuen.


**Gesto por la Paz**

www.gesto.org - gesto@gesto.org - 944 163 929


ELKARTASUNA



# IV Jornadas de Solidaridad con Víctimas

## Reconocimiento
## Onespena

**Bilbao,**
**martes 21 y miércoles 22 de junio de 2005**

**Salón Casco Viejo, Hotel Nervión (Campo Volantín, 11)**

**20'00h**

## Reconocimiento

En estas Jornadas nos planteamos fundamentalmente este interrogante: ¿qué debería hacer la sociedad hacia esas víctimas? Por esto, ofrecemos un espacio para la reflexión serena sobre el Reconocimiento Social hacia las víctimas.

Cuando ETA asesina a un ser humano, lleve el uniforme que sea, milite en el partido que fuera, trabaje de peón o de empresario o simplemente pase por la calle elegida para matar, tenemos que comprender y asumir que no es un ataque a ese ser concreto, sino a toda la sociedad. Por eso, las víctimas del terrorismo son nuestras víctimas y tenemos el convencimiento de que es absolutamente necesario que la sociedad realice acciones para reconocer a las víctimas, a todas aquellas personas que se han convertido en víctimas a manos de ETA. En este sentido, plantearemos reflexiones en torno a las siguientes cuestiones:

En muchas ocasiones, escuchamos que lo único que quieren las víctimas es justicia. Es evidente que los ciudadanos de a pie no ejercemos la justicia, pero ¿no entra dentro de un concepto amplio de justicia que nos acerquemos a las víctimas y compartamos su dolor, lo tratemos de hacer lo más llevadero posible, reconozcamos su situación y actuemos en consecuencia?

En los últimos años, se han realizado diversos actos de homenaje a las víctimas -de carácter institucional, homenajes a víctimas particulares organizados por su entorno y, también, actos de reconocimiento hacia todas las víctimas-. ¿Cómo percibe una víctima del terrorismo estos distintos tipos de reconocimientos? ¿se interpreta por parte de las personas afectadas que se hacen diferencias entre unas víctimas y otras? ¿cómo creen que deberían ser los actos? Y, por otra parte, ¿qué esperan las víctimas de las instituciones, de su propio entorno y de las organizaciones sociales?

Las reacciones de cada cual ante una situación tan traumática como convertirse en objetivo del terrorismo son muy dispares, como lo pudimos comprobar en las III Jornadas de Solidaridad con las Víctimas celebradas en pasado año. Esta diversidad también se refleja en sus exigencias, expectativas y deseo respecto a los actos de reconocimiento de la sociedad. Esto nos hace preguntarnos sobre cómo se debería combinar la voluntad de las víctimas con la obligación de la sociedad de reconocerlas.

Y, finalmente, nos preguntamos cómo se debería incorporar el reconocimiento a las víctimas a la memoria colectiva de nuestra sociedad.

Los días 21 y 22 de junio a las 20'00 h. en el Salón Casco Viejo del Hotel Nervión Barceló celebramos las IV Jornadas de Solidaridad con las Víctimas en las que pedimos que nos ofrezcan algunas respuestas a las cuestiones planteadas. El programa es el siguiente:

## Onespena

Jardunaldiotan, galdera hau egiten dugu funtsean: zer egin beharko luke gizarteak biktima horiekiko? Horregatik, biktimen aldeko Gizarte Aitorpenari buruzko gogoeta lasairako esparrua eskaintzen dugu.

ETAk, honako uniforme hau edo beste hura daramalako, alderdi batean edo bestean militante delako, peoi edo enpresari lanetan dihardueIako edo, besterik gabe, hilketarako aukeratutako kalean suertatu delako, pertsona bat hitzen duenean, zera ulertu behar dugu: ez dela gizon edo emakume horren aurkako erasoa bakarrik, gizarte osoaren aurkako erasoa baizik. Horregatik, terrorismoaren biktimak geure biktimak dira eta argi eta garbi ikusten dugu gizarteak ekintzak egin behar dituela biktimei, ETAren eskutik biktima bihurtu diren gizon eta emakume guztiei onespen eta aitorpena erakusteko. Hau dela-ta, hausnarketa eragin nahi dugu gai hauen inguruan:

Askotan, biktimek nahi duten gauza bakarra justizia dela entzuten dugu. Bistakoa da herritar arruntok ez dugula justizia gauzatzen, baina, justiziaren ikuskera zabala kontuan hartu ezkero, ez ote genuke biktimengana hurbildu behar, beren samina geure egin, egoera hori jasangarriago egiten lagundu, beren egoera aitortu eta horren arabera jardun?

Azken urteetan, biktimak omentzeko era askotako ekitaldiak –instituzionalak; omenaldiak biktima partikularrei, beren inguruak antolatuta; biktima guztiekiko aitorpen ekitaldiak- egin izan dira. Nola hartzen ditu terrorismoaren biktimak era askotako aintzatespen ekitaldi hauek?, biktima batzuen eta besteen artean bereizketan egiten direla ulertzen ote dute pertsona horiek?, beraien ustez, nolako ekitaldiak egin beharko lirateke? Eta, beste alde batetik, zer itxaroten dute biktimek erakundeetatik, beren ingurutik eta gizarte taldeetatik?

Terrorismoaren helburu bihurtzea egoera erabat traumatikoa da eta, horren aurrean, era askotakoak izan daitezke hori jasaten dutenen jarrerak, iazko Biktimekiko Elkartasunerako III. Jardunaldietan ikusi izan genuenez. Aniztasun hau gizartearen aitorpen ekitaldietatik eskatzen, itxaroten dutenean ere islatzen da. Horregatik, biktimen borondatea eta gizarteak horiei aitortzeko duen betebeharra uztartzeko bideak aztertu beharko genituzke.

Eta, azkenik, hauxe argitu beharko genuke: nola erantsi biktimekiko aitorpena gure gizartearen memoria kolektiboari.

Ekainaren 21 eta 22an 20'00etan 'Nervión Barceló' Hoteleko Alde Zaharra Aretoan Biktimekiko Elkartasunerako IV. Jardunaldiak ospatuko ditugu, besteak beste, aurkeztutako gai horiei nolabaiteko erantzuna eman nahian. Hauxe da egitaraua:

### 21 de junio, martes

**Galo Bilbao**
Profesor de la Universidad de Deusto y miembro del Aula Ética de dicha Universidad

**Ignacio Pérez**
Asesor del Gabinete del Alto Comisionado de Víctimas

**Maixabel Lasa**
Viuda de Juan María Jauregui, ex gobernador civil de Gipuzkoa, víctima de ETA

**Amaia Guridi**
Viuda de Santiago Oleaga, director financiero del Diario Vasco, víctima de ETA

### 22 de junio, miercoles

**Rafa Aguirre**
Profesor de la Universidad de Deusto

**Román Sudupe**
Ex Diputado General de Gipuzkoa

**Pedro Mª Baglieto**
Hermano de Ramón Baglieto Martinez, víctima de ETA

**Montserrat Antolín**
Esposa de un policía nacional víctima de un atentado de ETA

### Ekainaren 21a, asteartea

**Galo Bilbao**
Deustuko Unibertsitateko irakaslea eta Unibertsitate horretako Gela Etikoko kidea

**Ignacio Pérez**
Biktimen Goi Mandatariaren Bulegoko Aholkularia

**Maixabel Lasa**
Juan María Jauregui Gipuzkoako gobernadore zibil ohi eta ETAren biktimaren alarguna.

**Amaia Guridi**
Santiago Oleaga Diario Vasco egunkariko finantza-zuzendari eta ETAren biktimaren alarguna

### Ekainaren 22a, asteazkena

**Rafa Aguirre**
Deustuko Unibertsitateko irakaslea

**Román Sudupe**
Gipuzkoako Ahaldun Nagusi ohia

**Pedro Mª Baglieto**
Ramón Baglieto Martínez ETAren biktimaren anaia

**Montserrat Antolín**
ETAren atentatu bateko biktima izan zen polizia nazionalaren emaztea